

noaua



Beñat de Miguel, dentista:
“Lanak ekarri ninduen Eskoziara”

**Olarriondon ‘eko-auzoa’
eraikitzea adostu dute**



Estitxu Berasategi, ZEV Zuazo Barakaldo taldeko jokalaria:

**“Eskubaloi taldeen arteko
giroa oso sanoa da”**

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teilatuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak
- * Irisgarritasuna



ERAIKINAK

BIRGAITZEKO ETA

HOBETUNTZA

ENERGETIKOA

LORTZEKO

SOLUZIOAK

SOLUZIOAK ZURE ESKU, HEMEN, USURBIL

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170, Usurbil
Tlf: 625077916 | info@bonex.es



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

*EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK*

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

www.funerariagonzalez.es



USURBIL DÖNER KEBAB

ONDO JAN, ONDO BIZI

Zabalik Gaude

Dastatu zaporea Usurbilgo Döner Kebab-en,
Usurbilgo janari lasterreko jatetxe berri-berrian.

Kokapena: Borda Berri Kalea, 5 - Usurbil

Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera (13:00 - 16:30 eta 18:30 -
23:00)

Ostiraletik igandera (12:30 - 23:30)



Telefonia

843 675 265
603 609 183



Asken informazio gutia lortzeko, jarraitu gaitzazu
gure Sare Sozialetan



[usurbil_dk](https://www.instagram.com/usurbil_dk)



Usurbil Döner Kebab



*Ez eman buruhauste gehiago zure kontuari!
Esku onetan jarri!*

**ELORZA &
ASOCIADOS**

**IREKIERA
BERRIA USURBIL**



**AHOLKULARITZA OSOA
ENPRESA ETA AUTONOMOAK**

1. Aholkularitza

Autonomoak eta enpresa txikiak,
lan eta finantza kontabilitatea, zer-
gak, BEZa, errenta kontua, alokairu
kontratuak, nominak, immigrazio
prozedurak, etab.

2. Aseguroak

Kontultatu edozein aseguru
mota inolako konpromisorik
gabe.
Utzi adituek arduratzen!

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 9:30 - 14:00
Ordutegitik kanpo hitzordua eskatuta

elorzaasociados.arantza@outlook.es
elorzaasociados.valeria@outlook.es

HASTEN GARA?



Zubiaurrenea kalea 3 azpia, 20170, Usurbil, Gipuzkoa | Mug. 636746863 / 943906268

Albisteak iruditan

Ezkeltzun parke eolikoa eraikitzeke aurreproiektua onartua izan da

A ndatza ondoan, Zizurkilek eta Usurbilgo lurak partekatzen dituzten Ezkeltzu mendian parke eolikoa eraikitzeke aurreproiektua onartu duela berri eman zuen Eusko Jaurlaritzak, apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bidez. Go-goan izan, otsailaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak "Green Capital Development XLIV SLU" Madrilgo enpresak 4 aerosorgailu eraikitzeke aurretiazko administrazio-baimena eskatu zuela jakinarazi zuen.

"Instalatutako potentzia gordina" 18 MW-koa da. 20 eguneko epea zabaldu zuten gero "lehiarako baimen-eskaera gehiago" aurkeztu ahal izateko. Baina beste inork eskabiderik ez zuen aurkeztu eta aipatu enpresaren aurreproiektua onartzea erabaki du Jaurlaritzak, "aur-



Ezkeltzukoaz gain, beste hiru parke eoliko eraiki asmo ditu aipatu enpresa berberak Gipuzkoan.

keztu den bakarra delako". Energia berriztagarrien arloan diharduen lantegiak dagokion dokumentazioa aurkezteko sei

hilabeteko epea izango du. Antza, Ezkeltzukoaz gain, beste hiru parke eoliko eraiki asmo ditu aipatu enpresak Gipuzkoan.

Laburrean

Intzidentzia bera

Gorabeherarik ez; duela astebeteko 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia bera zuen aste hasieran koronabirusak Usurbilen; 276,60koa. 11 kasu berri zenbatu zituen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak iragan astean udalerr honetan.

Errigoraren produktuak

Errigoraren udaberriko kanpainaren baitan produktuak eskatu zenituztenontzat oharra. Maiatzaren 10etik 13ra jaso ahalko dituzue 8:30-14:30 artean NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Norbaitek ordu tarte horretan etorri ezingo balu, deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

Banatzaileak behar ditugu

NOAUA! astero herriko postontzietan banatzeko lan-poltsa osatu nahi dugu, sor daitezkeen beharrei erantzun ahal izateko. Interesdunek email bat bidali dezatela elkarte@noaua.eus helbidera edo deitu, 943 360 321 telefono zenbakira.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Alazne Arruti

Inurritasuna

Izan inurri proiektua, Lasartan jaio zen 2019ko abuztuan, tamaina ñimiñoko xomorroa oinarri hartuta, minbizia besarkatzeko asmoz. Julenek, bularreko minbizia-
ren eraginez galdu zuen ama eta ibilbide horretan guztian jasotako bizi grina eta esperientzia partekatzen hastea erabaki zuen Mirenekin eta bidean gerturatu diren hainbat laguntzailereren babesaz.

Ordutik, minbizia zuzenean edo zeharka pairatu dutenei laguntza eta babesa eskaintzen dihardute. Hasieran, poltsa eta kamisetak sortu eta bildutako dirua dohaintzan ematearekin hasi ziren arren, egun, esperientzia ezberdinetatik elikatutako bidelaguntza eta lanketa emozionalean sakontzen dihardute. Horretarako orde, gaixotasuna bizi dutenei protagonismoa eta ahotsa ematea ezinbestekotzat jo dute. Eta horren adibide da, apirilaren 29an, Agiñako Eliza Zaharrean, “Tabuen Kutxatik Oholtzara” izeneko bertso-saio musikatuan bizi izan genuena.

Julene eta Miren, oholtzara igo eta euren orain arteko ibilbidea azaltzen hasi ziren. Inurritegia nola hedatu eta sendotu den azaltzeaz gain, umoretsu azaldu zuen Julenek, amak bere haserrealdietan, nola baliatzen zuen bularreko protesia bakea titikadaka ezartzeko. Ostean, Gari Otamendi eta Araitx Bizkai musi-



“Pertsona beste titi oholtza gainean. Zapi koloretsu bat guztioi besarkatzen”.

ALAZNE ARRUTI

“Minbizia zuzenean edo zeharka pairatu dutenei laguntza eta babesa eskaintzen dihardute”

kariak aurkeztu zituen Amaia Agirrek, eta Eli Pagola, Miren Artetxe, Maialen Lujanbio eta Ane Labakarekin batera bete zuten oholtza, euren akelarerra ongi etorria emanaz.

Agurrekin pixkanaka giroa berotzen hasi ziren, konturatuaz, tabua errima txarra dela. Beharrezkoa dela, beldurra ematen duenari argia ematea. Eta bi titidun eta bakarrok elkarrekin, abestu genuen gora gu eta gutarrak.

IKERKETA: Maidar, bere irribarrearen pareko zapi koloretsuarekin igo zen papera eskuan, mikrofona bere egitera. Bularreko minbizi metastasi-koarekin aurrez aurre jarri ginen. Garbi azalduz, ikerketa

beharrezkoa dela oraindik. Eta bereiziz, ausartak, egoera latz baten aurrean bere erabakiz bertan geratzen direnak direla eta ez eurak. Bizitzea tokatzen zaiena nola hala onartu eta euren egin beste aukerarik ez baitute, eta eskerrak inguruko tribuari.

GORPUTZAREN ALDAKETAK: Sandrak zioen, ez direla soilik bistako aldaketak gertatzen. Ez dela ilea eta bularra galtzea soilik. Giharreko mina, medikamentuen albo kalteak, lehortea, basamortua hanka tarte... Baina ez dela minbizia jasan beharrik aldaketak nabaritzeko. Eta hala zioen: “Zuek zer, dena ondo? Duela urte batzuk moduan? Hezurak, indarrak, pazientzia? Ba horixe.” Eta hausnartu genuen grabitateak erorarazitako titiez. Estali nahi diren paparrez. Kexatu baino, protesta egin beharraz. Aldaketaz aldaketa, elkarri onean segi dezagula opatzeaz.

MUTILDUTA EGOTEAZ: Olatzek, ezkerreko bularra galdu

zuen eta tratamenduaren eraginez, hormonon gorabehera nagusitu omen zen beragan. Ordutik, maiz, mutilduta da-goela esan izan omen diote. Baina berak, mutilatuta da-goela zioen, ezpain gorrien azpian bibote eta bizarra duela-rik ere, ezkerrean pectorala eta eskuinean bularra duela. Lehen 11 gauza batera egiteko gai omen zen, buruari mila buelta emanaz. Baina hormona femeninoak galduz geroztik, gibela izugarria garatu omen du. Eta galdetzen zuen ea horixe ote zen mutil izatea.

Elenita berriz, naturaltasun osoz, Sagardui andreari zuzendu zitzaion, pandemiaren eraginez atzeratu diren frogan salaketa egiteko. Julenek, amaren agurraz hitz egin zigun. Agurrik ederrena, bera maitatzen jarraitzea dela ebatziz. Aintzanek, ile asko eduki eta gabe geratzeaz. Gehien falta bota zituen sudurzuloko ileez. Ipurtzulokoez eta euren funtzioez. Eta ohartzerako heldu zen amaiera.

Pertsona beste titi oholtza gainean. Zapi koloretsu bat guztioi besarkatzen. Rigober-taren titi gorazarrearen kanta euskaratuarekin, hauek heldu eta biluzik saltoka, oholtza gainean dantzan. Biziz gainezka, eta gozamenara emanak.

GORA ZUEK, GORA TRIBUA eta GORA INURRITASUNA.


Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Luis Aranalde

Komikia



“Garraio publikoko sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea da”

MUGI tarifa sistema sozialagoak eta progresiboagoak izateko neurri multzoa hartzea galdegiten duen mozioa onartu zuten martxoaren 31ko udalbatzarrean. Bizi dugun pandemiaren osteko krisialdiko testuinguru honetan, “garraio publikoko sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea da”.

Tarifak berritzaerakoan hainbat neurri onartzea eskatzen dio Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza: hurrengo bi ekitaldietan tarifen prezioak izoztuta mantentzea eta aurrera begira tarifak jaisteko formulak aztertzea; deskontu sistemaren aldaketa onartzea eta “laugarren tarte” onartzea doakotasun maila handitzeko; kolektibo zaurgarri berriak txertatzea MUGI-ren “tarifa ereduaren misio sozialean”; zerbitzu guztiak berreskuratu eta “garraio eskaintza behar beste zabaltzea”;



“Hurrengo bi ekitaldietan tarifen prezioak izoztuta mantentzea eta aurrera begira tarifak jaisteko formulak aztertzea” proposatu du Usurbilgo Udalak.

UDALA

“MUGI txartelaren tarifak berritzaerakoan hainbat neurri onartzea eskatu du”

eta neurri guztiok sistemaren kostua handitzea ekar dezaketela jakinik, “errepideen foru sarean bidesaria ordaindu behar den zatietan bildutakoaren zati bat garraio publikoa sustatzeko” erabiltzea.

Neurrian alde bozkatu zuten EHBildu eta PSE udal taldeek. EAJ abstenitu zen. Zalantzak adierazi zituen aipaturiko neurriotako batzuk gauzatzea posible izango ote den. Neurriok babestearen alde agertu arren, gipuzkoarrak zortedun direla MUGIrekin adierazi zuen PSE-ren udal ordezkariak. MUGI ez dela txartel soila, “berdintasuna bultzatzeko balio duela”, nabarmendu zuen Patxi Suarezek.

Mendebaldeko Sahararen inguruko mozioa

Mendebaldeko Saharako gatazkari lotutako mozioa onartu zuen udalbatzak martxoaren 31ko osoko bilkuran. Espainiako Gobernuak Marokok 2007an Saharako egindako autonomia-erregimenaren proposamena gatazka konpontzeko proposamen errealistena dela adierazi du berriki. Udalak onarturiko mozioak kezkagarritzat jotzen

du Espainiako Gobernuak “jarrera errotik aldatu izana, historian inoiz ez bezala”, hain zuzen “babesa ematen diolako Marokoko Erresumak Sahararen autonomiari buruz egindako proposamenari”.

PSE-ren aurkako bozka

Mozioa EAJ-ren ekarpenak txertatuta onartu zuten azken udalbatzarrean; EHBilduren

eta EAJ-ren aldeko bozkekin honenbestez. Aurka bozkatu zuen PSE-k. Mozioko puntuekin bat egiten zuela adierazi zuen Patxi Suarez zinegotzi sozialistak. Beretzat gai zaila zela zioen. Espainiako Gobernuak Marokori Sahararentzat adierazitako autonomiaren aldekoa dela adierazi zuen, “ez helmuga bezala, abiapuntu” gisa baizik.

Kirol zerbitzuetako abonua zati batzuen itzulketak

Kirol arloko udal zerbitzuei lotutako zenbait abonuen zatiak itzultzea erabaki zuten martxoaren 31ko osoko bilkuran. Udalbatzarrean eraman zuten gaia, ezohiko egoeran jazotako ezohiko itzulketak izan direlako, Ordenantza Fiskaletan jaso gabe zeudenak, Kiroldegian Covid-19 ziurtagiriaren erabilera derrigortu izanak eragindakoak.

Itzulketak kasuotan aplikatu dira: abonuen zati proportzionala 6 kasutan, ikastaroen zati proportzionala 5 herritarren kasuan, saunakoa herritar baten kasuan eta abonuen itzulketa herritar baten kasuan osasun arazoengatik. Proposamena gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen, udal zerbitzu bat baliatzeko abonua bat ondorio guztiekin izapidetzen dela argudiatuta.

Udal gobernu taldeak erantzun zitzaien esanez, ez Udalak ezta erabiltzaileek ez direla izan baldintzak aldatu dituztenak, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzak hartu baitzuen eremu itxietan Covid-19 ziurtagiriaren erabilera derrigortua ezartzeko erabakia. Aurrera begira antzeko egoerak eta eskaerak izango balira, gaia udalbatzarrean eraman beharrik izan gabe “irizpide berberak aplikatzea automatikoki”, asmo horixe du Udalak.



Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

Artzi

Parroquia de la Cruz

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Beñat de Miguel, dentista: “Lanak ekarri ninduen Eskoziara”

Beñat de Miguel zubietarra da izatez, baina azken hamaika urteak Eskozian egin ditu. Dentista da bera, eta lanak eraman zuen bertara. NOAUA!rekin izan da bere bizipenak partekatzeke.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Eskoziara?

Beñat de Miguel: Lanak ekarri ninduen Eskoziara duela ia 11 urte. Dentista naiz eta aukera sortu zitzaidan hemen lan egiteko. Oraindik ziur esaterik ez badaukat ere, asmoa aurten etxera itzultzekoa da, baina aurrena gauzak nola dauden ikusi behar.

Egunerokotasunean, lanean behintzat, ingelesez hitz egin beharko duzu. Zer moduzko maila daukazu? Ondo moldatzen al zara?

Hasiera batean eskolan ikasitakoarekin ekin nion abentura honi. Eskoziara etorri aurretik, Ingalaterran eman nituen hiru hilabete ingelesa ikasten. Behin maila hobetuta, hona etorri nintzen eta lanean hasi nintzen hortz klinika batean.

Brexit-aren eragina

Brexit-a martxan da. Eskozia izan zen prozesu horren aurka zegoen zonalderik nagusiena. Zein iritziz daukate orain eskoziarrek?



“Orokorrean, Eskoziako biztanle gehienak Brexit-aren aurka zeuden”.

BEÑAT DE MIGUEL

“Dentista naiz eta aukera sortu zitzaidan hemen lan egiteko. Oraindik ziur esaterik ez badaukat ere, asmoa da aurten bertan itzultzea etxera”

Orokorrean, Eskoziako biztanle gehienak Brexit-aren aurka zeuden. Neurri batean, askok bigarren erreferendum bat eskatzearen arrazoi nagusi izan daiteke gai hau, beste batzuen artean. Klean, jendeak ez du gehiegi hitz egiten Brexit-ari buruz edo ez behintzat eguneroko

elkarrizketa horietan.

Bere garaian gehiago hitz egin zen gai bat izan zen, baina gaur egun ez dirudi hala denik.

Arazorik izan duzu Brexit-ari lotuta atzerritarra izateagatik?

Nik ez dut orain arte inolako arazorik izan. Duela hiru urte dokumentazio berezia bete behar izan nuen Brexit-aren ondorioz arazorik ez izateko. Mugikorrerako aplikazio bat jaitsi nuen, pasaportea eskaneatu eta hemen bizi naizela erakusten duen froga bidali etxeko helbidea emanda eta argazki bat bidali. Bost edo hamar minutu eman nituen prozesu hori egiten, oso sinplea izan zen. Horrek, hemen bizitzeko eskubidea eman zidan. Gerora, ez dut arazorik izan gai horri lotuta.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat eza gutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzioa@noaua.eus

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
•eguneko menua •asteburuko menua
•karta •oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

“Janaria, eguraldia eta bizitza soziala botatzen ditut faltan”

NOAUA! Eskoziarrak eta ingelesak oso ezberdinak omen dira, ezta?

Beñat de Miguel: Umore ederra duten pertsonak dira, orokorrean, eta oso gertukoak. Nik egunerokotasunean pazientekin izaten dudan harremanean, behintzat, erraz hitz egiten dut beraiekin eta ez dira batere hotzak. Gustatzen zaie txantxazaleak izatea ere, eta atseginak dira. Ingelesekin duten ezberdintasun nagusia mundu ikuskeran da. Bereziki, azken urteetan, ikuspegi politikoan Eskoziak ezkererako joera hartu du eta Ingalaterra, berriz, kontrako norantzan doa.



Beñat de Miguelen esanetan, “eskoziarrak txantxazaleak dira, eta atseginak”.

Independentziaren inguruko erreferendumaren oihartzuna zabaltzen ari da azken urteetan. Zer diote eskoziarrek horren inguruan?

Giro politikora mugatutako zerbait da momentuz. Egunerokotasunean ez dute horretaz hitz egiten, eta kalean ere ez da mugimendu berezirik nabari,

BEÑAT DE MIGUEL

“Azken urteetan, politikoki Eskoziak ezkererako joera hartu du eta Ingalaterra, berriz, kontrako norantzan doa”

ez behintzat orain.

Hamaika urte kanpoan pasa dituzu. Etxeko zerbait faltan botako duzu ala dagoeneko ohitu zara hango bizimodura?

Bai, eta neurri batean horregatik daukagu itzultzea buruan.

Janaria, eguraldia eta bizitza soziala botatzen ditut faltan gehien.

Behin etxera itzulita ea gauzak nola diren ikusi beharko dugu, eta bizimodu berri bati ekin. Epe luzera ikusiko dugu zer egiten dugun.

“Covid neurriei dagokionez, antzeko egoeran gaude”

NOAUA! Brexit-a ez da Eskoziako arazo bakarra. Pandemiak leku hori ere jo du. Etxera itzultzeko edo egunerokotasunerako arazorik izan duzu?

Beñat de Miguel: 2020ko o-

tsailean izan ginen etxean, eta hurrena 2021eko abuzturarte ezin izan ginen itzuli. Orain, horko eta hemengo egoera antzekoa da Covid neurriei dagokienez. Neurri nagusia musukoaren erabile-

rari lotutakoa da, leku itxietan ezinbestekoa baita musukoa eramatea. Neurri gutxi batzuk gehiago ere badaude, baina ezer gutxi geratzen da orain.

Diskotekek uste dut orain-

dik badutela neurri batzuk jarraitu beharra, barran ezin da kontsumitu, eserita mahaian kontsumitu behar da. Neurri horiez gain, gainontzean ez da besterik geratzen.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Olarriondon ‘eko-auzoa’ eraikitzea adostu dute

Etorkizunean Munalurra auzunea handitu egingo da. Egungo etxebizitzon eta Ugartondon eraikitzen ari diren artean dagoen Olarriondo eremuko belardian eraikiko da bizileku multzo berria: “eko-auzoa”. Uda hasieran Udalak hasieraz onartu eta urteotan herritarren parte hartzearekin diseinatu duen Hiria Antolatzeko Plan Orokor (HAPO) berriaren helburuetara egokitua egongo dena.

Irizpide jasangarri eta ekologikoak aintzat hartuta gauzatu nahi dute. Garapen honi bidea ireki dion hirigintza hitzarmena adostu dute Udalak eta sektore honetako lur-jabeek, gai honek jorratu duen 20 urteko ibilbide gorabeheratsuen ostean.

Olarriondo lur-eremuan etxebizitzak eraikitzeak, bestela esanda, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-5 (Olarriondo) sektorea antolatu eta kudeatzeko sektoreko jabeen eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko hirigintza hitzarmena hasieraz onartu zuen udalbatzak martxoako osoko bilkuran, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin.



Udalaren eta lur-jabeen arteko hirigintza hitzarmen hau bi urteko “hizketaldi eta lan harreman iraunkor” batek ahalbidetu duela adierazi zuten udal gobernu taldetik azken osoko bilkuran.

HITZARMEN BERRIA

“Irizpide jasangarri eta ekologikoak aintzat hartuta gauzatu nahi dute Olarriondoko auzune berria”

EAJ abstenitu zen.

Udalbatzak hartutako erabakiaren berri ematen duen Usurbilgo Udalaren iragarkia apirilaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratu

zuen. Biharamunetik zenbaitzen hasita, alegazioak aurkezteko 20 eguneko epea zabaldu zuen Udalak.

Bi hamarkadako ibilbidea

Egitasmo garrantzitsutzat jo zuen alkate Agurtzane Solaberrietak “herri garapenerako”. Bere esanetan, “lor genezakeen akordio onena izan da”. Udalaren eta lur-jabeen arteko hirigintza hitzarmen hau bi urteko “hizketaldi eta lan harreman iraunkor” batek ahalbidetu

duela adierazi zuten udal gobernu taldetik martxoako osoko bilkuran. Alde guztiek hasieratik agerturiko jarrera eraikitzailea goraipatu zuen alkateak.

Udal gobernu ereduaren ardatz nagusia den herri parte hartzean kokatu zuen Solaberrietak hitzarmen hau adosteko bideratu duten lanketa; Zumarteko nahiz Zapategiko egitasmoen pare jarri zuten Olarriondo sektore honen garapena sustatuko duen hirigintza hitzarmena.

Eraikitzeak puntuak

Luze jo du adostasunerainoko bideak; 20 urte hain zuzen. Bi hamarkadako “ibilbide gorabeheratsua” izan dela aipatu zuten udal gobernu taldetik. 2003an du abiapuntua. Orduetik, 2006ra arte Udalak eta lur-jabeek zenbait hirigintza hitzarmen sinatu zituzten. Eta ordutik hona Olarriondo eremuan aurreikusten zen proiektuak izan du eraldaketarik. 409 etxebizitza altxatu asmo zeuden hasiera batean; 146 libre,

120 tasatu eta babes ofizialeko 120 etxe eta 23 sozial. 80.122 metro karratuko eraikigarritasuna zuen eremuak.

Proiektua bere horretan gauzatzear izan zuten; tramitazio bidea osatuta, “makinak sartzea baino ez zen falta”, udal gobernu taldetik azken osoko bilkuran gogora ekarri zuten. 2008ko krisiak ordea, ez zuen ahalbidetu proiektuak aurrera jotzea. Ekonomikoki bideraezina bilakatu zuen proiektua.

2015ean, 36 hilabeteko epea finkatzen da lanak hasteko, 2018ko uztaillean amaitzen da epe hau eta bistan denez lanak hasi gabe ziren.

Bitartean, 2014an Udalak Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) idazteko lanke-ta orokorra abiatzen du. Eta testuinguru honetan, prozesu honek “antolamendu berri bat adostea ekarri du”. Prozesu honen baitan, hiru aukera planteatu ziren Olarriondo

eremurako; 250, 300 edo 350 etxebizitza eraikitzea. Erdibideko aukeraren alde egin dute; 316 etxe eraikitzea. Lehendik aurreikusia zegoenarekin alderatuta, %23 gutxiago, eraikigarritasuna %35ean txikitu dute. “Guk gehiago gutxituko genuke”, adierazi zuten udal gobernu taldetik azken osoko bilkuran, herriaren “hazkuntza kontrolatua izateko” helburua bete nahi baitute.

Gune biziak, “irizpide jasangarri eta ekologikoetan eraikiak”

Eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua gutxitzearekin batera, aurreko planeamenduak aurreikusia ez zuen “erabilera nahasketa” bat ere planteatzen dute Olarriondo eremurako. Lotarako auzunea izatea saihestu nahi dute, eta beraz, hirugarren sektorerako bideraturiko lokalak izatea eraikin hauen behealdean, aparkaleku publikoarekin batera. “Funtzio anitz bilduko dituen gune biziak” sustatu nahi dituzte. “Beste hirigintza eredu bat, jasangarri eta ekologikoa”, Udalaren esanetan. “Eko-auzoa” eraiki nahi dute; oinezkoak lehenetsiko dituen, ibilgailuentzako sarbide mugatua izango duena, bizilekuek naturarekin bat egiteko berdeguneekin. Hirigintza eredu honek “karga urbanistikoak %30ean gutxitzea ahalbidetu du”.

Betebeharrak

Lur-jabeen eta Udalaren betebeharrak zehazten ditu hirigintza hitzarmen honek. Lur-jabeen aldetik, besteak beste, Itun Batzarra eratzea, lau egikaritze faseak definitzea edota Udala “Aranerreka parkeko sistema orokorreko lanak jabeen kargura egiteko” baimena ematea “hori lotuta doan fasea egikaritu aurretik.



Guztira 316 etxebizitza eraikiko dira. “Babes ofizialekoak, 180. Tasatuak, 62. Libreak, 74”.

BERMEA

“Hitzarmen honen baitan, “adostutakoa HAPO-an jasoko da”.

Plan Orokorra uda partean hasieraz onartu asmo du Udalak”

Jabeek ordainduko dute karga hori, kontrata bidezko 473.066 euroko (BEZ gabe) gehieneko egikaritze aurrekontuarekin; kopuru horretatik gorakoa Usurbilgo Udalak ordainduko

du”.

Udalak bere aldetik, HAPO-aren berrikuspen dokumentuan sartuko ditu “hitzarmen honetan ezarritako hirigintza-zehaztapenak eta antolamendu eta urbanizazio helburuak”. Horrekin batera, besteak beste, “hirigintza-eraikigarritasuna gauzatu ez denez, 2003. eta 2006. urteen artean sinatutako hitzarmenen arabera ordaindutako 454.544,98 euroko kopurua konpentsatzea, antolamendu berriak sortutako gainbalioe-

tako partaidetzagatik Udalari dagokion %15eko lagapenarekin”. Horrez gain, “antolamendu berrian oinarrituta idazten den birpartzelazio proiektuari gehitzea 23 etxebizitza sozial eraikitzeko esleitutako lurzattia, eraikitzeko eskubiderik gabe”.

Hitzarmen honek hain zuzen, bai Udalarentzat baita lur-jabeentzat ere bermea izatea nahi dute, “adostutakoa HAPO-an jasoko dela”. Plan Orokorra uda partean hasieraz onartu asmo du Udalak.

Hirigintza hitzarmenari buruzko zehaztasunak

- Xedea: “Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentuak S5 Olarriondosektorerako Hirigintza-zehaztapen berriak definitzea. Hitzarmen hau sinatzen duen alderdi bakoitzari dagozkion hirigintza-betebeharrak zehaztea”.
- Hitzarmenaren sinatzaileak: Olarriondo sektoreko jabeak

eta Usurbilgo Udala.

- Iraupena: lau urte, luzagarria aldeek hala adosten badute.

- Lur-eremua: S-5 Olarriondo sektorea. Egungo Arau Subsidiarioetako S-4 Olarriondo izeneko sektoreko mugaketari eutsiko zaio. Lurzoru urbanizagarria izango da, “bizitegi kalifikazioarekin, baina Aranerreka

errearen inguruko eremua Espazio Libreen Sistema Orokorgisa kalifikatuko da”.

Eraikiko diren etxebizitzak:

- Babes ofizialekoak: 180.
 - Tasatuak: 62.
 - Libreak: 74.
 - Guztira: 316.
- Etxebizitzekin batera: eraikin

hauen beheko solairuetan elementu komunitarioak aurreikusten dira, baita hirugarren sektoreko erabilerrako lokalak eta ekipamendu komunitarioak eta aparkaleku publikoa.

Informazio gehiago:

- Apirilaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Estitxu Berasategi: “Eskubaloi taldeen arteko giroa oso sanoa da”

Eskubaloian jokatzeko dohain bereziak ditu. Lehen Mailarako saltoa gazte zela eman zuen. Gaztee- gi akaso. Gehiegizkoa egin zitzaion presioa, batetik bestera ibili behar izatea... Eta etxera bueltatu zen. “Usurbil KE taldera itzuli nintzen. Geldialdi txiki bat egiteak asko lagun- du zidan. Ez naiz damutzen erabaki hartaz”. Iaztik Lehen Mailan da berriro, Zuazo Barakaldo taldean. Alaitasuna berreskuratu duen jokalaria baten gisa erantzun ditu gal- dera hauek denak.



Estitxu Berasategirekin abiatu dugu ‘Hamaikakoa’ izeneko saila. Luis Jambrina erreizadoreak egin ditu edizio lanak eta astero kirolari bati eginiko bideo-elkarrizketa bat sareratu dugu noaua.eus/bereziak/hamaikakoa helbidean.

NOAUA! Denbora eta energia asko eskaintzen diozu esku- baloiari. Astean zenbatetan entrenatzen duzu?

Estitxu Berasategi: Arratsalde- ro entrenatzen dugu, ordu eta erdi edo pare bat orduz. Denok batera entrenatzen dugu, bai- na bakoitzak bere kasa gimna- sioko bi saio egin behar izaten ditu. Bakoitzaren esku gera- tzen da hori, eta asteburuan partida izaten dugu.

Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra al dago?

Denbora ez dugu sobera izaten ezertarako, baina noizbehinka parrandarako denbora ere ate- ra behar da. Bestela, gehiegiz- ko estresa sortzen da.

ESTITXU BERASATEGI
“Ikusleak jada itzuli dira kantxara, eta pandemia aurreko giroa eta poztasuna nabari dira partidetan”

Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zure jarduerak?

Ni pandemiak Usurbilen har- rapatu ninduen. Urte berezia izan zen, txapelketak bertan behera uzteraino. Maila ho- netan ere bertan behera edo behintzat atek itxita jolastera behartu zituzten jokalaria.

Aurten denboraldia ohiko moduan hasi da, baina lehen partida hasi aurretik antigeno proba bat egin behar izaten genuen denok. Orain Covid ziurtagiriarekin txertatu gabe daudenek baino ez dute egiten antigeno proba. Gainontzekoan, normal samar jarraitzen dute gauzek. Noizbehinka positi- boren bat izaten da eta parti- dak atzeratu egiten dira horren ondorioz. Adibidez, datorren astean jai genuen berez, baina atzeratutako partida bat jarri digute positibo kasu horien- gatik. Ikusleak jada itzuli dira eta lehengo giroa eta poztasuna

nabari dira partidetan.

Noiz hasi zinen eskubaloia se- rio hartzen?

Hiru kirolean aritu izan naiz: futboleko, igeriketan eta esku- baloian. Behin DBHra iritsita, aukeratu behar izaten da. Ige- riketa alde batera utzi eta za- lantzak izan nituen futbolaren eta eskubaloien artean, baina momentu hartan eskubaloiak gehiago asebetetzen ninduen. Lagunen eragina ere izango zen neurri batean. Ez naiz sekula damutu, baina inork ez daki beste bide bat hartu izan banu zer izango zen orain.

“Bakoitzak duen onena eman behar du”

NOAUA! Barakaldoko Zuazo taldeko kidea zara. Lehiakor- tasun handia dago zuen tal- dean ala lagun giroan entre- natzen al duzue?

Estitxu Berasategi: Biak ematen direla esango nuke. Profesionala izanda, le- hiakortasun minimo batek egon behar du, bestela en- trenamenduak ere ez dira

horren erabilgarriak. Lehia- tzera joaten gara partidetara, eta bakoitzak duen onena eman behar du taldeak au- rrera egingo badu. Hala ere, oso gustura nago taldean eta horren arrazoietakoa bat etxeko giro hori sentitzea da. Horrek lehiatzen laguntzen digu, baina aldi berean, elkar zaintzen ere bai. Taldeko gi-

roan asko atzematen da hori.

Eskubaloian giro sanoa duze- la esan daiteke, ezta? Kanpotik itxura hori du.

Nik uste orokorrean oso giro ona daukagula. Txapelke- ta barruan behin eta berriz pertsona berdinen aurka jokatzeko ditugu partidak, leku berdinetan eta talde

berdinen aurka. Joan nai- zen leku guztietan giro ona sumatu dut beti. Batzuekin lehiakortasun gehiago izate- n dugu oso partida estuak direlako, gol bateko aldea izaten denean, adibidez... Lehiakortasuna egon bada- go baina oso sanoa izan da beti. Ez dut jarrera negati- borik sentitu sekula.

“Bera-Bera utzi eta Usurbil KE eskubaloit taldera itzultzeak on egin zidan”

NOAUA! Bera Berarekin iritsi zinen elitera. Une jakin batean, Bera Bera utzi eta Usurbil KE taldera itzuli zinen. Iaz, maila gorenera itzuli zinen berriro, Zuazorekin. Akaso gazteegi eman zenuen lehen mailarako saltoa?

Estitxu Berasategi: Nik uste eman behar nituen bi pauso izan zirela, Bera Berara joatea eta ondoren uztea. Momentu hartan iruditu zitzaidan ezin nuela aukera pasatzen utzi, gerora etorriko zela jakiterik ez zegoena. Momentu hartan hara joan behar nuen. Ez dakit adinagatik edo zergatik, baina gerora gehiegizkoa egin zitzaidan. Adina izan liteke edo gaztetatik selekzioetan aritzeagatik... Baina gehiegi izan zen. Usurbilera itzuli eta geldialdi txiki bat egiteak asko lagundu zidan orain lehen mailara itzultzen. Ez naiz damutzen erabaki hartaz.

Eskubaloian, Usurbilek tradizio handia du. Habia garrantzitsua izan da. Hemendik kanpo, Usurbil KE eskubaloit taldeak bere prestigioa du, ezta?

Usurbil oso herri txikia da, baina euskal eskubaloian izen handiko taldea da. Zuazoko entrenatzaileak esan zidan haien belaunaldian ere Usurbilgoa talderik onenetariko bat zela. Inguruan herri eta hiri handiak dauzkagu, Zarautz edota Barakaldo, esaterako. Herri txikia eta maila ederra erakutsi du Usurbilek, eta Euskadiko eskubaloian izen bat lortu du.

Eskubaloit bizi al daiteke bat? Zure kasuan, zer ari zara ikasten edo zertan ari zara lanean?

Herrialde bakoitzaren araberakoa da hori. Ordu luzeak eman ditzakegu gai honetaz hitz egiten. Herrialde bakoit-



“Euskadin izen handiko taldea da Usurbil KE eskubaloit taldea”.

ESTITXU BERASATEGI

“Eskaintzen zaizkion orduak ikusita, gurea ere profesionala dela esango nuke, baina soldata duinak urrun daude oraindik”

tzak bere baldintzak baititu.

Gure kasuan, talde asko

daude eta aurrekontuak ere denetarikoa dira. Jokalariak eta mailak ere kontuan hartu behar dira honetaz hitz egiteko garaian. Orokorrean, bizitzera iristeko nahikoa ez da irabazten. Agian, urtetxo batzuetan mantentzeko nahikoa izan liteke, baina Espainiako txapelketan, eskubaloiaz gain zerbait gehiago ere egin be-

harra dago. Garrantzitsua da oinarritzko zerbait izatea, ikasketak edo lana, bestela segituan bukatzen da irabazitako dirua. Jokalari zaren bitartean ere, posible da horretara ere ez iristea.

Beste herrialde batzuetan indar gehiago dauka eskubaloiak. Frantzia edota Alemaniaren adibidez, baina ez nago ziur baldintzarik onenak non dauden. Herrialde batzuetan eskubaloiak gurean baino indar gehiago du, eta bertan aukera gehiago daude.

Eskaintzen zaizkion orduak ikusita, gurea ere profesionala dela esango nuke nik, baina oraindik urrun daude soldata duinak.

Etorkizunean, elitea uzten duzunean, kirol munduari lotuta ikusten duzu zeure burua?

Bai. Txikitatik egon naiz kirolari lotuta, eta uste dut bizitza osoan egongo naizela horri lotuta. Ikasten ari naizena ere horri lotuta dago. Magisteritza eta kirol zientziak egiten ari naiz.

Ez dakit oso ondo nire etorkizuna nondik nora joango den, baina kirolari lotuta egongo da ziur.

Laburrean

“Usurbilgo txoko bat? Zubietako Eskola Txikia”

1. Zenbaki bat.
5.

2. Kolore bat.
Urdina.

3. Kirolari bat.
Zaila egiten zait erantzutea.

4. Kantxa bat hautatu ezazu.
Zarauzkoa.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Vikingos (Netflix).

6. Liburu bat.
En plena noche (Mikel Santiago).

7. Abesti bat. Quemar el mar (Lágrimas de Sangre).

8. Sare sozial bat.
Instagram.

9. Usurbilgo txoko kuttunena zein duzu?
Zubietako Eskola Txikia.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Sagardo Eguna.

11. Oporretarako toki bat aholkatuko diguzu?
Balear iriak.

Aurrematrikulazioa lehenago, Oinarrizko Lanbide Heziketan

Ohi baino lehenago aurrematrikulazioa 2022-23 ikasturterako aurrematrikulazio epea zabaltzeaz dute Lanbide Heziketa osoan, baita Atallun kokatua dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketan. Bi espezialitateetan, ile-apainketa eta estetika eta sukaldaritza eta jatetxea arloetan trebatzeko aukera dago.

Bi ikasturtez osatua dago hezkuntza eskaintza, 2.000 orduko ikasketa prozesua guztira (990 ordu lehen ikasturtean, 1.010 ordu bigarreanean).

Ikasketen izaera praktikoa

15-17 urte arteko gazteak matrikulatu daitezke Oinarrizko Lanbide Heziketan, "salbuespenez, DBH2 egina dutenak". Zubi aproposa, lan munduratu nahi izan edota gerora erdi mailako ikasketetan murgildu nahi dutenentzat.

Atalluko ikastetxeko lan metodologia zerbait esatekotan, "oso praktikoa" dela nabarmendu behar da. "Tailerrean



Oinarrizko Lanbide Heziketari buruzko informazio zabala jaso dezakezue, [olh.usurbil.eus](mailto:usurbil.eus) atarian.

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

"Tailerrean praktika eginez lanbidea ikasten da (egunean lau ordu)"

praktika eginez lanbidea ikasten da (egunean lau ordu). Beharrezkoa den teoria soilik lantzen da eta lanbidearekin zer ikusi zuzena duten edukiak irakasten saiatzen gara (egunean bi ordu). Lehen ikasturtean esaterako, oinarrizko

heziketarekin batera, lanbide modulu praktikoak eskaintzen dituzte, baita tutorretza eta orientabide zerbitzua ere. Bigarreanean, baita formazio eta lan orientabidea eta 260 orduko iraupena duten praktikak enpresetan.

Bi urteko ikasketak amaituta, Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua, DBH graduatua, edozein ziklo eta espezialitateko erdi mailako ikasketarako sarbide zuzena edota lan munduratzea eskuratzen da. "1 profesionaltasun ziurtagiria".

"Gaztea erdigunean jartzen dugu"

Tarte ezin garrantzitsuagoa du Oinarrizko Lanbide Heziketak egungo hezkuntza eskaintza zabalean. Atalluko ikastetxearen txikitasunak talde txikietan lan egitea ahalbidetzen die. "Ikasleen atentzio indibidualizatua ziurtatuta dago". Ikasle bakoitzak jorratu nahi duen bidea lantzen laguntzen dute; "ikasle bakoitzari helburu pertsonalak jarri, jarraipena egin eta ebaluatzen zaie".

Ikaslea, hezkuntza prozesuko protagonista

Oinarrizko Lanbide Heziketan ikasten ari den "gaztea erdigunean jartzen dugu eta ahaldunduntzen saiatzen gara". Enfoke



Ikaslea erdigunean jartzen duen ikasketa prozesua eskaintzen dute.

sistemikotik jarduten dute, familiarrekin hartueman estuan. "Ikaslea hezkuntza prozesuaren protagonista da. Gaztea-

rengan sinesten dugu eta gazte bakoitzaren ahalbide eta gaitasun positiboak lantzen ditugu", OLH-tik azaldu dutenez.

Salto udalekuetarako sukaldari bila

UEMA-k ekainaren 27tik uztailaren 3ra udalerrri euskaldunetako 14-18 urteko gazteentzat Tolosa eta Etxarri Aranaztik Leitzara antolatutako udaleku ibiltarietan lan egiteko sukaldariak behar dituztela jakinarazi dute. Interesdunek curriculumak arnasguneak@uema.eus helbidera bidali behar dituzte maiatzaren 13a baino lehen. Lan esperientzia, euskararekiko sentsibilizazioa eta taldean lan egiteko erraztasuna baloratuko dira hautaketan. Informazio gehiago behar duenak, 633 646 996 telefono zenbakira deitu dezake.

Aldaketak, Ziortzaren kanpaldian

Izen ematea laster irekiko dute. Aurre izen emateari dagokionean, kopuru oso altua izan dela berri eman du Ziortza G.E.-k. Peñaloscintoseko eremua mugatua izanik, txandak egokitu dituzte, "gazte guztiak etor daitezten":

- 1.txanda: uztailak 5-14 (DBH 3-4).
- 2.txanda: uztailak 14-20 (DBH2).
- 3.txanda: uztailak 20-26 (DBH1).

Izen ematearen itxiera Udajolasen

Maiatzaren 5ean itxiko da NOAUA! K.E.-k Usurbilgo Udalarekin batera uztailaren 4tik 29ra antolatutako aisialdi ekimenean izen emateko epea. Online bideratu behar da noaua.eus atariko Udajolas izeneko atalean klikatuta. Hilaren 5ean itxiko da baita, Udajolaserako hobariak eskatzeko epea udaletxean. Baita zuzendari nahiz begiraleen lan poltsa osatzeko curriculumak elkartea@noaua.eus helbidera bidaltzeko zabalik dugun tarte ere.



Ate Irekiak

HARTU
HITZORDUA!!!



Maiatzak 4



Erdi Maila: 16:00 - 17:30

Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 7



Erdi Maila: 10:00 - 11:30

Goi Maila: 11:30 - 13:00



943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus



AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Hartu hitzordua!!!



943 364600

www.lhusurbil.eus

Zallek: “Uste baino harrera hobeia izan dute emanaldiek. Ez zuten estilo hau espero”

Azpeitiako Zallek musika talde berriaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu, maiatzaren 13an 23:00etan Sutegin. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman eskura ditzakezue. Urola bailarako taldea bai, baina kide usurbildar bat du taldeak; Josu Furundarena Padrones. Ttipikako partaide ere baden musikariarengana jo dugu argibide gehiagoren bila.

Zer egin du usurbildar batek Azpeitiako talde batean parte hartzeko?

Josu Furundarena Padrones: HUEZI-ko garaietan sortu genuen Erokmeri taldetik dator guztia. Diskoa atera genuenerako beste ideia batzuekin genbiltzan, horrek sortu da Zallek.

Lau urteko bidea osatu du proiektuak.

Duela lau urte hasi ginen lehen zirriborroak egiten. Diskoan agertu ez diren lehen bi kantak sortu genituen. Egitura gabekoak ziren, 14 zati eta sei minutuko bat tartean. Egitura gehiago nahi genuen eta gure estiloa bilatzen hasi ginen. Finkatzeko dugu oraindik.

“Karakorum” zuen lehen diskoa. Izenak ere ibilbide gora-beheratsua irudikatzen du?

Karakorum-ek bidaia luzea eta



Asier Aizpuru Arregi (bateria), Unai Olaizola Lasa (baxua), Martin Altuna Arriola (trikitixa) eta Josu Furundarena Padrones (kitarra) laukoteak osatzen du Zallek taldea. Martxel Arkarazo Silvarekin grabatu dute lehen diskoa Garaten.

JOSU FURUNDARENA

“Niretzat entzuteko zaila den musika adierazten du. Melodikoa, instrumentala, girotzailea eta olatuez beterikoa da”

nahiko aldapatsua islatzen du.

Eta “Zallek”?

Izen ezberdinak plazaratzen joan ginen. Niretzat entzuteko zaila den musika adierazten du. Melodikoa, instrumentala, girotzailea eta olatuez beterikoa da. Lasaitasunetik abiatzen da, gero in-

tentsitatea handitzen da, guztiz ez da jaisten eta gero gora gatzoz berriz. Lasaia da, baina gogorra ere. Sakona.

Nolatan erabaki zenuten hitzik ez sartzea?

Taldean gaudenok normalean ez dugu idazten ezta abesten ere. Genituen instrumentuen arabera erabaki genuen zer sortu.

Harridura eragin du?

Azpeitia edota Getariako gazte-txeetan jo dugu. Uste genuena baino harrera hobeia izan dute emanaldiek. Ez zuten estilo hau espero. Askok eskatu digute

ahotsa txertatzea. Plazei begira, azken hilabeteotan emanaldi kopurua covid-agatik asko mugatu da. Orain aktibatze lan horretan ari gara baina zaila da, lanean gabiltza.

Ahotsik gabeko kontzertua izango da Usurbilgoa. Emanaldia bizitzeko bestelako modua eskainiko diguzue?

Hondoko musika izateko aukera ematen du butakan goxo eserita, dantzatzekoa. Etenik gabeko ordu erdiko emanaldia izango da, intentsitate aldetik gorabeheratsua. Gertutasuna ematen eta giroa berotzen saiatuko gara.

“Plazak pixkanaka betetzen ari dira”

Nolako esperientzia izan zen Garateko grabazioa?

Zoragarria. Elkarbizitza potente bat sortzen da. Martxel Arkarazo maisu handia da. Goxotasun eta enpatia handiz hartu gintuen. Diskoari berari forma handi bat berak eman dio. Musika entzuten du, bere ekarpen guztiak dira aberasteko... Talde kide bat

gehiago izan da.

Dantza Egunean ere parte hartu zenuen, musikari gisa. Nolakoa izaten ari da dantzari eta antzezleekin sortu den lan-kidetza?

Oso polita, aberasgarria batez ere. Oso estilo ezberdinetako musikariak biltzen gara. Inplikazioa eskatzen digu baina

elkar ezagutza bat izatea ere bai. Denon arteko elkarlan hori oso polita da. Pertsonalki asko ematen dit. Egia da, denbora eskatzen du denok biltzeko eta zaila da. Baina plazako emanaldi eguna bizitzea zoragarria da. 10 urte bete ditu Dantza Eguneko ikuskizunak. Ia mantentzen den, ikusten ez den lan handia baitago atzetik.

Uda partera begira zer nolako agenda duzue?

Maiatzaren 7an Orbeldik antolatutako 3. Dantzari Txiki Egunean emanaldia eskainiko dugu Ttipika taldearekin. Bi urteko etenaldiaren ostean, berriz jardunari heldu diogu. Kontzertu aukerak sortzen doaz. Plazak pixkanaka betetzen ari dira.

Eskuzabalik hartu dute herritarrek, Andatza Egun girotuaren itzulera

Osasun krisialdiak eten eta berreskuratzen goazen herri bizitzaren ispilu argia ondoko argazkia. 2019az geroztik ospatu ezin izan zen Andatza Egun girotuarena. Maiatzaren lehenean, mendizalez bete zen tontorra. Musikak eta Santueneako lagunek zerbitzaturiko hamaiketakoak sustrai sakonak dituen ohitura berpiztu zuten. Itzulerrari harrera beroa egin zioten herritarrek.

Bideak zaintzeko eskaera

Hainbat zuhaitz botatzeko lanetan ari dira Andatza inguruan. Maiatzaren 1eko ospakizunean zenbait herritarrek NOAUA! bidez, bideak zaintzeko eskaera plaratzeari galdegin zioten.

Errotarrietara ibilaldia

Ihurrita elkarrekin Gipuzkoako Erroten Eguna antolatu du maiatzaren 8an, "jendeari errotak hobeto ezagutzeko eta ondare-elementu horri lotutako alderdiak ulertzeko". 33 he-



2019az geroztik ospatu ez zen Andatza Egun girotu eta jendetsua bizi izan genuen maiatzaren lehenean.

ANDATZA EGUNA

"Maiatzaren lehenean, mendizalez bete zen tontorra"

rrietan hainbat ekintza egingo dituzte. Usurbilen, Andatzako errotarrietara ibilaldia antolatu dute, "azken urteetan Andatza alderik alde miatu duten" Javi Castro eta Yoseba Alonso ikerlariekin. 9:30etan Urdaigako plazan edo 10:00etan Puelaberrin elkarteko hitzordua finkatu dute.

Antolatzaileen arabera, "Usurbilgo Andatza mendiak 25 harrobi eta 150 errotarri baino gehiago dauzka bere lurretan. Mota ezberdin ugariak topatu daitezke, lantze prozesuan, hasi berriak, ia amaitzean dauden harriak edota tamaina eta funtzio ezberdinetakoak. Mendian dagoen ondare honek, mendeetan zehar Usurbilen errotagintzaren inguruan sortu zen bizimoduaren adierazle dira, eta mendia zer nola ustiatzen zen ulertzen laguntzen dute".

Andatza gordeleku, Zirimararentzat

Gordeketan eta zapiak aurkitzeko jolasean primeran igaro zuten Andatza Eguna, Zirimarako kideek. Familia plana antolatu zuten maiatzaren lehenean. Urdaigatik oinez gailurreraino igo eta hamaiketako dastatu ostean, jolasean aritu ziren babesleku inguruko zuhaiztietan.

Izen ematea

Eskolaz kanpoko aisialdi egitasmoan datorren 2022-23 ikasturterako matrikulatzeko epea zabaltzekotan dira. Maiatzaren 16tik 27ra bideratu ahalko da izen ematea. Aldizkari honen 23. orrialdean dituzue xehetasunak. Matrikulaziorako adi; Oiarde Kirodegiko bazkide



Zirimarako familia planeko partaideak, Andatza Egunean.

izatea ezinbestekoa izango da. Zirimararen ordainketa diruz laguntzen du Udalak; hobariak eskura daitezke. Datorren aste-

tik aurrera, ate irekien saioak iragarri dituzte. Hilaren 9an Aginagan, 11n Zubietan eta 12an Usurbilen.

Erraustegira martxa

"Zubietako erraustegiaz, zer ez digute esaten?" aldarripean, erraustegira martxa maiatzaren 14an, Lasarte-Oriako Okendo plazatik, goizeko 11:00etan, Eguzki, Donostia Bizirik, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Greenpeace eta Ekologistak Martxan eragileek antolatuta. Martxa girotua iragarri dute.

Txorien kantuak ezagutzeko ibilaldia

Mikel Olano basozainaren eskutik, maiatzaren 7an, goizeko 10:00etan Sutegin gaiari buruzko zenbait azalpen emango ditu eta segidan, Aranerreka parkean barrena txorien kantuak identifikatzeko ibilaldia antolatu du Anerreka ingurumen elkarrekin. Maiatzaren 18rako bestalde, trantsizio energetikoaren gaia hizpide hartuta, hitzaldia antolatu du aipatu herri eragileak, Pablo Lorentekin.

Desazkundez

Trantsizio sozioekonomikoa izan zuten hizpide iragan apirilaren 28an Sutegin dozenaka lagunek Joseba Azkarraga Etxagibelek zuzendutako hitzaldian. Baliabideen etengabeko ustaketaren ondorioak aztertu zituzten eta gizartean egin beharreko aldaketak zenbaitu. Desazkundean oinarritutako saihestezinezko etorkizuna emantzipazio bide nola bilakatu aztertu zuten. Gizakia sortzen ari den hondamendia datu zientifikoak eskuan ikertu zuten eta aukera posibleak ikuskatu.



Desazkundeari buruzko iragan asteko hitzaldia.

Edertu zaitez!



ESTETIKA

**FOTODEPILAZIOA
DIDO LASERRAKIN**



TARIFA FINKOA
PREZIOAK ZURE ESKURA!
KONPROMISORIK GABE
INFORMA ZAITEZ!

Munolurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria **688 75 96 96**



**secretos
del agua**



INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA



*osasungarriak eta
kimikarik gabe*



Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia



- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462



**GOLDWELL
ELUMEN**



mistoa

9.00etatik 19.00etara zabalik

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Garaipen bikoitza Pagazperentzat, Handia Tour txapelketan

Garaipen berri bat Pagazperentzat. Usurbilgo pilota elkartetik NOAUA!-ri berri eman diotenez, “astebukaera bukatu zen Frantzian jokatu den Handia Tour txapelketa (kirol egokitan gurgildun aulkian paleta gomaz)”.

Pagazpek parte hartu eta bi garaipen erdietsi ditu. Batetik, “txapelkun geratu da ezker paretan modalitatean”. Txapelkunorde aldiz beste modalitate batean. “Trinketean berriz bigarren postuan”, Usurbilgo pilota elkartetik berri eman dutenez.

Segidan duzue aurkari izan zituztenekin batera, emaitzen sailkapena.



Pagazpe pilota elkarteko kideak, tartean, Beñat Lizaso, asteburuan irabazitako kopa eskuartean dutela. Irudia: Pagazpe.

Ezker paretan:

1. Pagazpe
2. Baiona
3. Mindara
4. Tarbes

Trinketean:

1. Baiona
2. Pagazpe
3. Tarbes
4. Mindara

Munduko txapelketara bigarrennez

Datorren ekainaren 10etik 19ra Funchalen, Portugalen ospatuko den txapelketarako sailkatu da Nahia Zudaire Borrezo. Euskal selekzioa ordezkatzeko du, Iñigo Llopisekin batera. “Ezjakintasun askoren ondoren, ofizialki neure bigarren munduko txapelketarako sailkatuta”, berri eman du sare sozialen bidez. Iaz Tokioko Olinpiar Jokoetan lehiatu zen.



Nahia Zudaire, iazko Tokioko Olinpiar Jokoetatik bueltan Zubietako omenaldian.

Miriam Arrillaga, txapeldunorde

Iragan asteburuan Ezkabarten (Nafarroa) ospatu den Espainiako Frontball lehiaren azken fasean, txapeldunorde amaitu du Miriam Arrillaga Beloki pilotariak, bera bezala Gipuzkoako Su Berri klubeko kide den Itsaso Gorostidiren aurka jokatzeko neurketa. Zubietako kirolaria iaz ere postu berean sailkatu zen, kasu hartan, Aoizen jokatu zen lehiaren.



Miriam Arrillaga Beloki, Frontball txapelketako sari banaketan.

Pala txapelketa

Emakumezko zein gizon-ekoiztutako binakako pala txapelketa antolatu dute. Teniseko pilotarekin jokatzeko dira neurketak. Izen ematea zabalik maiatzaren 9ra arte, Aitzaga tabernan.

Emakumeen Itzulia

Maiatzaren 13tik 15era ospatuko den lehen Itzulia Women emakumezko txirrindularien lasterketako azken txanpak, hilaren 15ekoak Usurbil zeharkatzeko du, N-634 errepidetik barrena. 139,8 kilometro luze izango dituen San Ixidro eguneko hirugarren eta azken etapak Donostia izango du abiapuntua eta helmuga.

Udal kirol saileko burua hautatzeko deialdia

Usurbilgo Udalak “2020ko Enplegu Publikoetako Eskaintzetan jasota dagoen kirol saileko burua plaza lehiaketa-oposizio sistema bidez betetzeko deialdia” plazaratu du. Lan deialdi honetara aurkeztu direnei besteak beste, “Jardueren Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua edo baliokidea izatea edo baliokidea edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izana” eskatzeko zaie.

Bi lan-poltsa

Eskabideak, aurkezteko 20 eguneko epea izango dute interesdunek, “Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik” zenbatzen hasita, usurbil. eus atarian edo udal erregistroan. “Oposizioaren proba guztiak gaitu eta izendatuak ez diren izangai guztiak” Udalak osatzeko dituen bi lan-poltsetan sartuko dira. Informazio gehiago, apirilaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Ikastaro eskaintza zabala asteotan, herri eragile anitzen eskutik

Hainbat ikastaro iragarri dira asteotarako Usurbilen. Lerrootan bildu ditugu xehetasunak.

■ “Ipuinak sexu heziketaz blai”

Sutegi udal liburutegiak Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunearekin elkarlanean antolaturiko ikastaroa. Maiatzaren 17an eta 24an saio bana iragarri dute, 2-7 urte arteko haurren guraso eta laguntzaileentzat, 18:00etan liburutegian. Elena Jimenez sexologoak eta aipatu udal zerbitzuko arduradunak bideratuko ditu saioak. Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, haurren zaintza zerbitzua eskainiko da. Ikastarorako izena Sutegi udal liburutegian bideratu beharko da.

■ Biodantza ikastaroa

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak emakumeentzat antolaturiko doako ikastaroaren saioak, asteartero, 15:30-17:00 artean Oiardo Kiroldegian. 15 lagunentzako lekua dago. Izen ematea: 943 377 110/parekidetasuna1@usurbil.eus.



Argazkilaritza ikastaroko lanak Sutegin dituzue egunotan ikusgai.

“IPUINAK SEXU HEZIKETAZ BLAI”

“Elena Jimenez Sexu Aholkularitza Gune arduradunak bideratuko ditu saioak”

■ Sendabelarren eta joskintza tailerrak Santuenean

Santuenea Kultur Elkartek bi tailer antolatu ditu: joskintzarena maiatzaren 20an, 17:00-19:00 artean Santuenea 12an Mari Carmen Orozekin. “Nork bere maki-

na eraman behar du”, ohartarazi du antolakuntzak. Gune eta ordutegi berean baina hilaren 20an eta 27an sendabelarren tailerra eskainiko da. Tailerrotan izen emateko deitu 670 027 731 telefono zenbakira.

■ Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

“Ilargiaren eragina landare, zuhaitz, erle eta fruitu arboletan. Egutegi dinamikoa” izeneko saioa antolatu du Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak maiatzaren 20an 15:30-18:30 artean Potxoenean, Xabier Akizu-

rekin. Izen ematea 10 eurotan, aurrez usurbilkultura.eus edo alkartasuna.eus atarietan.

■ Argazkilaritza ikastaroko erakusketa

Einean Guraso Eskolak ikasturtean zehar abian dituen ikastaroen artean, bada bat argazkilaritzaren ingurukoa, Ibai Arrieta usurbildarrak gidatzen duena. “Oinarrizko Argazkilaritza” trebakuntza saioetako parte hartzaileek landutakoa, “praktikan jartzean lorturiko emaitzak” plazaratzea erabaki dute; ikusgai izango dituzue maiatzaren 9ra arte Sutegiko erakusleihoan.

■ KzGunea

16:00-20:00 artean zabalduko duten KzGuneako datozen ikastaroak hemen:
-Maiatzak 19-25, 16:00-18:00 “Mekanografia. Ikasi hutsetik”.
-Maiatzak 26-27, 16:00-18:00 “Online izapideak Osakidetarekin”.
-Maiatzak 30-31, 16:00-18:00 “Sortu bideoak zure gustukoen irudiekin”.

DYA-ren ikastaro zikloa

Ikastaro sorta antolatu dute asteotarako Munalurra 26ko egoitzan. Osasun fisiko nahiz emozionala lantzeko, eremuotako ezagutza sakontzeko eta bizi-kalitate hobea izateko ikastaro zikloa antolatu du Gipuzkoako DYA-k Usurbilen.

“Ongizate emozionala”

- Epea: maiatzak 3-ekainak 14.
- Ordutegia: 16:00-19:00.
- Lekua: DYA-k Munalurra 26an duen egoitza.
- Prezioa: doan.

■ Egitaraua:

- Maiatzak 3: “Emozioak: zer diren eta krisi batetik eratorritako aldaketa psikologikoak”.
- Maiatzak 17: “Antsietateari aurre egiteko gakoak”.
- Maiatzak 31: “Depresioa eta gizarretik bakartzea”.
- Ekainak 14: “Osasun psikologikoa eta bizitza emozional osasuntsua eramateko aholkuak”.
- Oharrak:
 - Saio solteetara joan daiteke, aurrez jakinarazita.
 - Jarduera dinamikoak izan-

go dira, zalantzak eta esperientziak partekatu ahalko dira.

“Bihotz biriken suspertzea eta desfibrilagailua”

- Eguna: maiatzak 14, larunbata.
- Ordutegia: 9:00-13:00/14:30-18:30.
- Tokia: DYA-k Munalurra 26an duen egoitza.
- Zehaztasunak: “Bihotz biriken geldialdi bat identifikatzen ikasiko da, bihotz biriken oinarrizko suspertze teknikak gauzatzen eta KDAa



Munalurra 26an duten egoitzan eskainiko dira hitzaldiak.

erabiltzen (Kanpoko Desfibrilagailu Erdi Automatikoak).”.

■ Oharrak:

-Taldea mugatua.
Informazio gehiago eta izen ematea: dyagipuzkoa.com
Antolatzailea: DYA Gipuzkoa.

Jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketa abian

Herriko festen itzulera-rako prestaketa lanak aurrerabidean dira. Ekitaldien berri jasotzen duen egitaraua diseinatzeko lehiaketa ere abian jarri du berriz Jai Batzordeak eta Udalak.

Lanak originalak eta aurrez argitaratu gabeak izan beharko dute. Banaka edo taldean aurkeztu daitezke, euskaraz eta nahi adina diseinu. Neurria librekoa izango da. Euskarri digitalean (CD edo pendrive batean, PDF formatuan) eta paperean aurkeztu beharko dira.

Egitarauko testua Potxoe-nean eskuratu beharko da eta testu horretan oinarritu beharko da diseinu lana. Udal logoa ere erantsi beharko zaio. “Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da”, ohartarazi dute deitzaileek.

Lanak maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira udal erregistroan edo helbide honetan: Usurbilgo Udala, Kultura Saila; Joxe Martin Sagardia plaza z.g., 20170 Usurbil. Kasu honetan, “posta-bulegoan bidaltzen deneko data justifikatu beharko da, eta egun berean email bat helarazi kultura@usurbil.eus helbidera”.

Bi gutunazal

Sortze lan bakoitzeko bi gutunazal aurkeztuko dira, egilearen izengoitia, A edo B letra hizkia eta “Santixabeletako egitarau lehiaketa” adieraziz. A kartazalean partaidearen datuak zehaztuko dira: izen-abizenak edo taldearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefono zenbakia edota helbide elektronikoa. B gutunazalean diseinu lana txertatu beharko da, euskarri digitalean eta paperean. Kartazaletan nahiz gutunazal barruko dokumentazioan, “izengoitia ez den beste izenik erabiltzen bada



Bueltan datozen Usurbilgo jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketarako lanak maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira. Txapeldunak 500 euroko saria irabaziko du.

EGITARAU LEHIAKETA

“Lanak originalak eta aurrez argitaratu gabeak izan beharko dute. Banaka edo taldean aurkeztu daitezke, euskaraz”

identifikatzeko, eta izen horrek parte-hartzailea zein den jakiteko bidea ematen badu, parte hartzaile hori lehiaketatik kanpo geldituko da”.

Diseinu arloko ezagutzak dituzten bi kideek eta kultura zinegotziak osaturiko epaimahaiak hautatuko du diseinu lanotako bat. “Erabakia hartzeko orduan, garrantzia handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari”. Txapeldunak 500 euroko ordainsaria jasoko du eta bere sortze lana herriko postontzi guztietan banatuko da. Argibide gehiagorako: 943 377 199/kultura@usurbil.eus

30. Sagardo Eguneko egitaraua prest

Plazara bueltan datorren usurbildarren festa kuttunenaren egitaraua prest dute jada Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideek.

Maiatzak 22, igandea

- 11:00 Botatzaileen argazkia.
- 11:30 Irekiera. Baserriko zein sagardotegi ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala.
- 14:30 Sagardo dastaketaren itxiera.
- 15:00 Botatzaileen bazkaria.
- 18:00-21:00 Matrakak Elektrotzaranga kaleetan zehar.

Antolatzailea: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak.

San Ixidro Eguna ere bueltan

Maiatzaren 15ean izango da, igandez. Ospakizun eguna antolatu dute plazan. Egitaraua osatzen dabilta antolatzaileak. Xehetasun gehiago datorren aldizkarian.

1. Txalaparta festa

Jexux Artze K.E.-koen eskutik, maiatzaren 26tik 28ra. Duela 20 urte zendutako Jexux Artze omenduko dute, bestelako ekintzen artean.

3. Dantzari Txiki Eguna larunbatean

Beasaingo Aurtzaka, Igorreko Arantzarte eta Iruñeako Ordazar dantza taldeek Orbedikoekin batera ospaturiko topaketaren ondotik, dantzari gaztetxoenen txanda larunbat honetan. Helduek apirilaren 30ean egin bezala, gaztetxoek ere dantzaz girotuko digute herria asteburuan.

3. Dantzari Txiki Eguna Maiatzak 7, larunbata

- 10:00 Harrera dantza-talde gonbidatuei: Hernaniko Ttarla, Zarauzko Jalgi, Urnietako Egape eta Oiartzungo Haurtzaro.
- 11:00 Kalejira udaletxetik abiatuta.
- 13:00 Dantza-emanaldia frontoian.



Orbediren ekintza hauen argazki bilduma datorren aldizkarian.

- 17:30 Dantza gidatuak Ttipika taldearekin frontoian. Antolatzailea: Orbedi D.T.

Udal-hobarien 64 onuradun, lehen hiruhilekoan

2022ko ordenantza fiskaletan hobarien eskaintza handitzea onartu zuen udalbatzak iragan udazkenean “aberastasunaren banaketa justuago baten alde”. Urte hasieratik eska daitezke hobariak. Ordutik lehen hiruhilekoan bildutako datuak plazaratu ditu Usurbilgo Udalak. Udal kontu-hartzailetzaren arabera, 91 herritarrek bideratu dute hobariak jasotzeko eskaria, eta gehienek, 64k jaso dute aldeko ebazpena, gainerako 27ek ezezkoa.

64 herritar horietatik 50ei %90eko hobaria aplikatu zaie, “beraz, hobariak aplikatzen zaizkien zerbitzuengatik tasen %10 soilik ordaindu beharko dute. Beste 12ri %75eko hobaria aitortu zaie, eta beste biei, %50ekoa”, Usurbilgo Udaletik zehaztu dutenez.

Aldaketak ordenantza fiskaletan

Gogoan izan, %50-%90 arteko hobariak jaso daitezke, ur, hondakin, estolderia, hileta, baratzen erabilera eta kirol instalazio (abonuek gain, lehen aldiz ikastaroetan), Haur Esko-



91 herritarrek bideratu dute hobariak jasotzeko eskaria, eta gehienek, 64k jaso dute aldeko ebazpena, gainerako 27ek ezezkoa.

HOBARIEN ESKAERA

“91 herritarrek bideratu dute hobariak jasotzeko eskaria, eta gehienek, 64k jaso dute aldeko ebazpena”

la zerbitzuetan eta Udajolasen.

Hobarien eskaintza zabal-tzen zuen 2022ko Ordenantza Fiskalak aldatzea erabaki zuen udalbatzak martxoaren 31ko osoko bilkuran, “azken hila-beteetan indarrean sartu diren legedi eta sententziek sortu duten egoera berrira egokitze-ko”. Aldaketa eragin dutenen artean da Espainiako Auzitegi

Konstituzionalak “gainbalio zergaren oinarria kalkulatze-ko erabiltzen zen modua edo metodoa Konstituzioaren aurkakoa zela” ebaztea. Erabaki honen harira, estatuak eta Gipuzkoako foru arauak ere “kalkulurako metodo berriak txertatu ditu”. Tasa hau ezartzeko gehieneko muga %15etik %30era igo zuen berriki. Udalaren kasuan, udal gobernu taldetik martxoa amaierako udalbatzarrean berri eman zuenez, %12an zen lehen aipatu tasa eta orain %18ra igotzea erabaki dute, “lehengo diru bilketa berreskuratzeko”.

Bestalde, “lanbide arteko

gutxieneko soldata” eguneratzeak ordenantza fiskalak egokitzea eragin du, hobariak jasotzeko dirusarrera muga berriak ezarri eta hobari eskaintza zertxobait zabaltzea ahalbidetu du.

Azkenik, ondasun higiezi-zen eta ibilgailuen gaineko zergetan “aldaketa teknikoak sartu nahi dira, herritarrek eska ditzaketen hobarien tra-miteak erraztu asmoz”. Kasuo-tan herritarrek ez dute agiri gehiago aurkeztu beharko, “baldin eta zerga bilketako langileek aipaturiko agiri eta datuak egiaztatze-ko baimena jasotzen badute”.

EHBilduren udal ordezkari-zen aldeko bozkekin onartu ziren aldaketok hasieraz. EAJ eta PSE abstenitu ziren. Hasie-rako onarpenaren berri eman zuen Usurbilgo Udalak apirilaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zuen ira-garkian. Biharamunetik zen-batzen hasita, 30 lanegunez zabalik dago erreklamazioak aurkezteko epea. Epe hau igarota, halakorik egongo ez balitz, aldaketok behin betiko onartutzat joko ditu Usurbilgo Udalak.

Euskal Errepublika aldarrikatu zenetik 91 urte

91 urte bete ziren apirilaren 17an, Usurbilgo Udalak mozio bidez Euskal Errepublika aldarrikatu zuenetik. Hala gogorarazi du, euskara eta euskal kultura bere egi-tekoen erdigunean kokatzen dituen independentziaren aldeko Naziogintza izeneko elkartetik.

“Gaurko egunez, duela 91 urte, Usurbilgo Udalak, aho batez, Euskal Errepublika bat aldarrikatu zuen mozio baten bitartez. Espai-

niako Errepublika ezarri eta hiru egun geroago egin zuen Usurbilgo Udalak aldarrikapen hori, 1931ko apirilaren 17an, garai hartako zinegotzi guztien adostasunarekin”, oroitarazi du NOAUA!ri helarazitako oharrean.

Duela 91 urte Usurbilgo Udalak hartutako erabakia ez zen kasu bakarra izan. Ziurrenik gehienontzat ezezaguna den gertaera hau plazaratzeko, “gure historia hurbileko pasarte ezezagun hori gogora-

razteko, eta Euskal Errepubli-karen beharra gaur egun ere aldarrikatzeko, Naziogintza Taldeak ekitaldi ireki bat ospatuko du maiatzaren 7an, goizean, Azpeitiako Herriko Plazan (12:00etan) eta Sanagustinen (12:30ean). Azpeitiar-rak, usurbildarrak eta Euskal Herriko herritar guztiak gon-bidatuta daude. Izan zirelako gara, garelako izango dira”. Naziogintza Taldeari buruzko informazio gehiago, naziogin-tza.eus atarian.

Haur Eskolan matrikulatzeko epea maiatzaren 11n amaituko da

Maiatzaren 11n amaituko da Kalezarren kokaturiko Haur Eskolan matrikulatzeko garaia.

0-3 urteko haurrentzat

Gogoan izan, 0-3 urte arteko Haur hezkuntza eskaintzen dute. Deialdia beraz, 2020, 2021 eta 2022 urteetan jaiotako haurrei zuzendurikoa da.

Informazio gehiago edota hitzordua eskatzeko:

■ haureskola@udarregi.eus
■ 943 374 061 telefono zenbakia.
Ordutegia, 8:30-12:00 artean.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, mas-

kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrendo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaeretak. Egurdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut.

Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaqucamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxe lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkatz. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxe lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu di-tuenak Udaltzaintzan dauzka jasotzeko.

Xerriak salgai. Apote bat eta 9 hilabetetako 5 xerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Danel!**

Zorionak! 7 urte pasa dira iada zu gurera iritsi zinenetik! Muxu handi bat!



Zorionak Janet! Konturatzera, eman diozu eguzkiari lehen bira... Alai eta sorgin pauso bakoitzean! Zenbat maite zaitugun pitxina!

Futbol partidak Haranen**Maiatzak 7, larunbata**

■ 09:30 Eskola Kirola.

■ 10:30 Infantil neskek: Udarregi Usurbil FT "A"-Hernani CD

■ 11:45 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil FT "A"-Urki CD

■ 15:30 Kadete mutilak: Usurbil FT-Urki CD

Maiatzak 8, igandea

■ Futbol Eskola: 2. urteko benjaminak 2012: Usurbil FT-Pasaia KE

Eskubalo partidak Oiardon**Maiatzak 7, larunbata**

■ 17:15 Senior mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E-Ereintza Beissier

Maiatzak 8, igandea

■ 10:00 Alebin mutilak, errendimendua 2. fasea: Usurbil K.E-Pulpo

■ 11:45 Kadete mutilak, Gipuzkoako Kopa: Zarazpe Usurbil K.E.-Urola Rs Aralar

Usurbil K.E.-ren errifa zozketa

Apirilaren 30ean egindako zozketan, 935 zenbakidun errifaren jabeari egokitu zaio Bordaxoren urdaiazpikoa eta 17 zenbakidun errifaren jabeari Saizar sagardotegian bi pertsonentzako menua.

Heriotzak**Arantxa Rezola Aristizabal**

Maiatzaren 1ean hil zen, 94 urterekin Donostian.

**Heriotzak****Basilio Osa Alzibar**

Apirilaren 26an hil zen, 91 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 05 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 06 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 08 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astlehena 09 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 10 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Osteguna 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda maiatza

06 ostirala

07 larunbata

08 igandea

- Txorien kantuak ezagutzeko ibilaldia. 10:00etan Sutegin.
- Sareren mendi martxa Oriora. 10:00etan Mikel Laboa plazatik.
- 3. Dantzari Txiki Eguna. 10:00etan hasita egun osoz.

- Andatzako errotarrietara bisita gidatua. 09:30etan Urdaigako plazatik.
- Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" egitasmoaren baitan ondutako "Harri minak" antzezlanak. 19:00etan Sutegiko auditorioan.

"Harri minak" antzezlanak

Euskarazko sorkuntza sustatzeko Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" egitasmoaren baitan ondutako "Eresia: Lurra arin bekizu, ama" antzezlanaz gozatzeko aukera izan zuten apirilaren 30ean Sutegira joandakoek. Amaren heriotzean oinarritutako antzezlanak kantua, dantza eta erritua barnebiltzen ditu. Heriotzaren gainean egindako hausnarketa lan sakonak utzitako ariketa lan ederra biribildu zuten, Eneko Gilek, Belen Cruzek eta Oier Zuñigak, "ekintza eszenikoa bera, dolu erritu kolektibo bilakatuz".

"Harri Minak"

Egitasmo berean landutako sorkuntza lanak plazaratzen ari dira egileak. Igan-dean, maiatzak 8, 19:00etan hasita Su-



'Eresia: Lurra arin bekizu, ama' antzezlaneko pasarte bat.

tegin, "Harri mina" Berritza eta Bonbon Beltz konpainien antzezlanak. Amancay Gaztañagak zuzendu eta Josune Gorostegui eta Dominika Recalt antzezleen eskutik helduko zaigu emanaldia, "zuloak harriari min ematen al dio?" galderaren bueltan. Sarrerak aurrez 5 eurotan esku-ragarri usurbilkultura.eus plataforman.

Sareren mendi martxa Oriora

"Garrantzitsua da, erabakigarria, mobilizatzen jarraitzea", zioen Sarek aurreko ostiraleko Mikel Laboa plazako elkarretaratzean. Maiatzaren 7rako herri ezberdinetatik Oriora antolatuta diren martxetan parte hartzeko gonbita luzatu zuten. Zuta-beetako bat Lasarte-Oriatik abiatu eta 10:00etan helduko da Mikel Laboa plazara, usurbildarrekin batera Oriorako bidea osatzeko. Orion, 13:30etan hasita ekitaldia edota kontzertuak

iragarri dituzte. Bazkaria ere bai; txartelak Txiribogan, Aitzagan eta Bentan. Antzeko ekimenak bideratuko dira Sareren eskutik asteotan Hego Euskal Herri osoan, "Etixerako bidea gertu!" aldarripean. "Egin ditzagun guztion artean 3.127.326 kilometro elkarbizitzarako, bakerako, etxerako bidean! Eta batu gaitzen datorren urriaren 8an Donostian, azken kilometroak elkarrekin egin ditzagun".

Datozenak

Organo emanaldia

Liesbeth Schlumberger hegoafrikarren kontzertua Organoaren Lagunak taldekoen eskutik, maiatzaren 14an 20:00etan Salvatore Elizan. Sarrera doan.

Arratsalde pasa

Santuenea Kultur Elkarteko eskutik, maiatzaren 13an 18:00-20:30 artean auzoko eskubalo-plazan. Dj Gorka-Mendik giroturiko Txikidantza, jolasak eta zizka-mizkak iragarri dituzte. Euria egingo balu, frontoian ospatuko da arratsalde pasa hau.

Umoreaz feminismitik eta euskaratik solasean

"Umorea disekzio-mahaian: feminismitik eta euskaratik" solasaldia antolatuko du Usurbilgo Udalak maiatzaren 12rako, 18:30ean Sutegiko auditorioan, Ane Labaka eta Idoia Torregarairekin. "Umorea ez da kontu hutsal bat, gizartetik sortzen den eta gizartea (bir)sortzeko gaitasuna duen praktika sozial indartsu bat baizik". Ane Labakaren "Algara mutilatuak" izeneko lanean oinarrituta umoreaz arituko dira. "Umorea egiteko erak eta haien ondorioak izango dituzte jopuntu, ikuspegi feministaren optika argigarritik". Izen ematea: usurbilkultura.eus

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



IZEN EMATEA: online maiatzak 16-27

<https://forms.gle/gQa4UkzFh8p7PaPE7>



Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolako
ES45 3008 0259 1121 8354 1214 kontu korrontean
eta agiria bidali eskolakirola@udarregi.eus helbidera

Oharrak:

- Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiarde Kiroldegiko bazkide izatea, izan norbanako modalitatean edo familia modalitatean.
- Kiroldegiko abonamendurako hobariak daude errentaren arabera.
- Guzti honetaz informazioa Udalaren webgunean aurki dezakezue.

LH 1-2ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolas hezi programa • Psikomotrizitatea • Natur jarduerak • Saio bereziak
- Famili planak

LH 3 - 4ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolasak • Kirol alternatiboak • Talde kirolak • Banakako kirolak
- Natur jarduerak • Saio bereziak • Famili planak

ZIRIMARA FAMILIA

- Gorputz mugimendua • Familia hezkuntza
- Jarduera fisikoa familian • Jolasak

GELDITU GABE JARDUNEAN!




SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2022

Maiatzak 20, OSTIRALA

ILARGIAREN ERAGINA LANDARE, ZUHAITZ,
ERLE ETA FRUITU ARBOLETAN. EGUTEGI
BIODINAMIKOA

Xabier Akizu.

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenean



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman eta
alkartasuna.eus web orrian.

